PLT-C-2025-0017
JU/ld

ZERBITZU HONI DAGOKION PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EKORTZEKO BI KAMIOI BERRI EROSTEA ETA BIDE AZPIEGITURETAKO ETA LURRALDE ESTRATEGIAKO DEPARTAMENTUKO ARTAPENEKO ETA SISTEMA ADIMENDUNETAKO ZERBITZUKO BESTE BI BESTERENTZEA

(3-SM-53/2025)

1.- OBJEKTUA:

Agiri honen objektua da ekortzeko bi kamioi berriren (lehen matrikulazioa) ezaugarri teknikoak definitzea, horiek erosteko, eta, aldi berean, eragiketa horretan bertan besterenduko diren ekortzeko kamioien ezaugarriak deskribatzea.

2.- EKORTZEKO KAMIOIAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

Horniduraren xede den ekortzeko kamioiak jarraian zehazten den ekipamendua izan beharko du bere osaeran, erabiliko den lan eremuetan zerbitzu egokia eman ahal izateko ahalik eta modu eraginkorrenean. Horretarako, ekorketa eta xurgatze lanak egingo ditu errepideko plataforman, modu oso, azkar eta seguruan, eta EBko VI. faseko emisio estandarrak betez. Bi ardatzeko ibilgailu bat konfiguratzea erabaki da, eta haren gainean muntatuko da ekortze ekipoa.

Hornitu beharreko ibilgailuak kamioi txasisa izango du, ekortzeko eta xurgatzeko ekipamenduarekin, eta honako ezaugarri espezifiko hauekin:

2.1.- Kamioiaren txasisa:

- Diesel motorra.
- Euro 6 motorra.
- Gutxieneko potentzia: 230 CV.
- «Par motorra» gutxienez 850 NM.
- Eskuzko abiadura-kaxa.
- Ardatzen arteko distantzia: 3500-3900 mm nominala.
- Atzeko blokeo diferentzial integratua.
- Gehieneko masa baimendua: 14-18 tona.
- Atzeko eta aurreko baleztak dituen esekidura.
- ABS balaztatze sistema + EBS balaztatze sistema elektronikoa.
- Larrialdiko frenatze sistema.
- Aurrez aurreko talkaren berri emateko sistema, larrialdietako balazta barne.
- Zerbitzu frenoen eta aparkatzeko frenoen sistema.
- Ihes gasak birziklatzea.
- Maldan abiatzeko laguntza.
- Kabinaren baskulazio hidraulikoa.
- Bi atzeraispilu, lurrunaren aurkako sistemadunak edo berogarriak, eta kabinatik erregulatzeko modukoak.
- Aurreko atzeraispilu tolesgarria.
- Beira-jasogailu elektrikoa
- Erregai biltegia, 100 litroko gutxieneko edukierakoa, eta AdBlue biltegia (Urea), 25 litroko gutxieneko edukierakoa.
- Su itzalgailua.

ACTAe4d5d217-b016-4020-93b2-2cc4289d36f8

- 2 plazako kabina. Gidariaren eserlekua, erregulazio pneumatikoarekin, bizkarralde altuarekin eta buru-euskarriarekin.
- Bolantea gidariaren eskuinaldean.
- Segurtasun uhalak jarleku guztietan.
- Itxiera zentralizatua
- Aire girotua.
- Atzera martxako atzeko kamera.
- Atzera martxako ohartarazle akustikoa.
- Katu hidraulikoa.
- Takografo digitala.
- Abiadura-mugatzaile elektronikoa, indarrean dagoen araudiaren araberakoa.
- Irratia/audio-ekipoa USBrekin, esku libreekin (Bluetooth) eta irrati-frekuentzien sistema europarrarekin.
- 185 Ah-ko bateriak, mantentzerik gabe. Bateria deskonektatzeko gailua.
- 12v + 24v-ko korronte harguneak osagarrietarako tresnen taulan.
- Irratia, Bluetooth-a eta GPS lokalizagailua jartzeko aurreinstalazioa.
- Egunez gidatzeko LED argiak.
- Atzeko posizio argiak.
- Zuria.
- Marka korporatiboa: GFA.

2.2.- Ekortzeko eta xurgatzeko ekipamendua

- Transmisio mota: Hidrostatikoa, ekorketa-abiadura etengabe kontrolatzeko aukera ematen duena, gutxienez 0-25 km/h eta gutxienez 80 km/h garraio moduan.
- Motorra: Kamioiaren txasisaren motorra erabiltzen du, eta bateragarria da 230 CV-ko gutxieneko potentziekin.
- Eskuineko alboko eskuila: 650 mm-ko diametroko eskuila, abiadura doigarriarekin eta altxatze sistema automatikoarekin atzera egitean. Lurrerako presio gaitasunarekin eta eskuilaren posizioa eta inklinazioa aldatzeko aukerarekin. Eskuineko eskuila ordulariaren kontrako noranzkoan irekiko da, talka eginez gero, krokadurak eta hausturak saihesteko.
- Eskuila zentrala: Esekidura pibotagarria eta eragingailu hidraulikoa duen eskuila. Lurrerako presio gaitasuna duen arrabol zentralarekin.
- Aurreko eskuila zabalgarri indibiduala eskuinaldean: Translazioa duen eskuila, gutxienez 0 eta 500 mm artean lan egin dezakeena tarte horretako posizio desberdinetan. Inklinazioa kabinatik erregulatzen da.
- Xurgatzeko haizebidea eskuineko aldean, ur-pitekin. Gainera, beste bi pita izango ditu sarrera hodiaren goiko aldean. Xurgatze ahoak berariazko babesa izango du kolpeek eragindako kalteak saihesteko.
- Ur isurketa, gutxienez 80 bar-eko presioan. Ponpa gehigarria, 3 baldekatze barrarekin. Gutxienez, aurreko aldean eta albokoan.
- Aldi berean ekortzea: eskuilak eta xurgatzeko haizebideak aldi berean funtzionatzeko aukera ematen du.
- Atzeko mahuka-xurgatzaile handia.
- Presiopeko ur-pistola, upelaren atzealdean jarria.
- Ur biltegia: 1.400 litroko gutxieneko edukiera.
- Toberaren gutxieneko edukiera: 6 m³.

ACTAe4d5d217-b016-4020-93b2-2cc4289d36f8

- Tobera-atal integratua eta erresistentzia handiko altzairu herdoilgaitzezko ur biltegia.
- Inklinazio angelua: 45º baino gehiagoko deskarga angelua.
- Ur iragazkia: Toberaren gorputza ur-tanga bihurtzen du.
- Diagnosi integratua. Datuak ateratzeko OBDak hartzea.
- Pantailak eta monitoreak: Ekortzeko eta xurgatzeko ekipamenduaren ohartarazpen akustikoak eta bisualak ditu.
- Eskuineko alboko eskuila ganbera.
- Atzeko kamera atzeko atean.
- Ponpa hidrostatikorako sarbidea, eskailera edo plataforma finko edo tolesgarri batetik.
- Biltegiratzeko armairuak: Toberaren bi aldeetan daude, eta ur-harguneak, mahuka luzatzeko hodiak eta erreminta kutxak gordetzeko aukera ematen dute.
- Konektore elektrikoak: Urarekiko erresistenteak, gutxienez IP67 babes-maila dutenak.
- Kateak toberan.
- Laneko argiak.
- V-2 argi seinalea (bi argi birakari, babesarekin), ibilgailuaren goiko aldean, izkina bakoitzean bana.
- Balizak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren (2822/1998 ED) XI. eranskinaren arabera, 2. motako material islatzailearekin, ibilgailuaren behealdean eta atzealdean 3. motako banda fluoreszenteekin osatua.
- V-23 kartela.

2.3.- Beste batzuk:

- Gutxienez urtebeteko bermea.
- Azterketa teknikoa, obra zuzendaritza eta IAT
- Homologazioa eta legeztatzea.
- Garraioa, dokumentazio osoa eta matrikulazioa izapidetzea barne, adjudikaziodunaren kontura.

Adjudikaziodunak ekortzeko makinen erabilerari, funtzionamenduari eta mantentze lanei buruzko prestakuntza ikastaro bat eskaini beharko du, gidari-makinistei zuzendua eta horretarako gaitasuna duten langileek emana. Ikastaro honen kostua hornitutako makineriaren eskaintzan sartuko da eta, beraz, ez dio inolako kostu gehigarririk ekarriko GFAri.

Era berean, bere gain hartuko du makineria-parkeko mekanikariei prestakuntza espezifikoa ematea, makinaren, ikuskapen eta kontserbazio puntuen, konponketa txikien eta abarren deskribapenari eta ezaugarri teknikoei dagokienez. Prestakuntza hori adjudikaziodun enpresako teknikari kualifikatuek emango dute.

Eskaintzak aurkezten direnean, eskaintzen den kamioi-erratz-xurgagailuaren fitxa teknikoaren ale bat aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, eskatzen diren ezaugarriak zehatz-mehatz zehaztuta (ofiziala edo fabrikatzaileak zigilatua), eta argi eta garbi adierazita lehen zerrendatutako ezaugarri tekniko guztiak betetzen direla, eskaintzen den ibilgailuak izan behar dituen ekipamenduari dagozkionak.

ACTAe4d5d217-b016-4020-93b2-2cc4289d36f8

PLT-C-2025-0017
JU/ld

3.- BESTERENDU BEHARREKO MAKINERIAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK:

1.- Ibilgailua: Ekortzeko kamioia
Marka: IVECO – A1NM02
Aldaera: AM2150B150BR
Potentzia: 29.92 CVF
Matrikula: 2766 - GMR
Tara: 9120 Kg
Ekortze ekipamendua: SK 600 schmidt modeloa
Kokalekua: Andoaingo bidezainen basea
Matrikulazioa: 2009ko maiatzaren 26an
Km: 91.498 km





2.- Ibilgailua: Ekortzeko kamioia
Marka: IVECO - A1NM02
Aldaera: AM2150B150BR
Potentzia: 29,92 CVF
Matrikula: 2778 - GMR
Tara: 9120 Kg
Ekortze ekipamendua: SK 600 schmidt modeloa
Kokalekua: Azpeitiko bidezainen basea
Matrikulazioa: 2009ko maiatzaren 26an
Km: 78.254 km





ACTAe4d5d217-b016-4020-93b2-2cc4289d36f8

PLT-C-2025-0017
JU/ld

4.- ENTREGATZEKO EPEA

Gehienez ere 4 hilabeteko epea izango dute.

5.- AURREKONTUA

Hornidura kontratua unitateko preziokoa izango da, eta enpresa interesdunek ekortzeko kamioi unitate bakoitzerako prezioa eskaini beharko dute. Kalkulatzen da makina bakoitzaren kostu unitarioa 274.000,00 € + BEZa izango dela.

Bi unitate eskuratu behar dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsia eskainitako balioaren bikoitza da: 548.000,00 €, BEZik gabe.

Era berean, besterendu beharreko makineriaren tasazioaren peritu txostenak ekortzeko bi kamioiak 66.500,00 euroan baloratu ditu (BEZik gabe).

Beraz, eskuratze horretarako aurreikusitako lizitazio tasa 596.580,00 € da, kontratuaren balio zenbatetsiari % 21eko BEZa aplikatuta eta besterendutako balioa deskontatuta ateratzen dena.

2026eko ekitaldiko partidaren kargura ordainduko zaio adjudikaziodunari.

EKS | CSV: ACTAe4d5d217-b016-4020-93b2-2cc4289d36f8
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	PLT-C-2025-0017 EUSKERA.pdf

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

URANGA AGUIRIANO, JON

ET, INSTALAZIOAK
TM INSTALACIONES

Data / Fecha: 2025/07/16 12:14:04

Sinatzailea 2 / Firmante 2:
CAPETILLO ARRANZ, Ane Miren - AB INSTALAZIO ETA EKIPAMENDU ADIMENDUAK // JSC INSTALACIONES Y EQUIPAMIENTO INTELIGENTE
Data / Fecha: 2025/07/17 07:37:33

Sinatzailea 3 / Firmante 3:
ZUFIRIA ZATARAIN, Iñigo - JEFE DE SERVICIO DE CONSERVACION Y SISTEMAS INTELIGENTES
Data / Fecha: 2025/07/17 09:08:46